

## AGENDA @ Irrati-Telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOIEIN

## Señor Troncoso

Enrique Iglesias eta Alejandro Jodorowsky saio berean. Erdian, bere buruari «la tapicera del reino» deitzen dion gizon afeminatu bat. Gorra da lau urte zituenetik. «Sonotonea bai inbento ona!» dio Jesus Quintero aurkezleak. «Nire ondarerik handiena, gorra noiz agertu ez eta noiz bai asmatzen jakitea!».

Homosexualitatea obsesioa da Quinteroarentzat. Homosexualak ondo hartu ohi ditu bere saioetan, esan gabe doa... Baina berea jada ez da amodioa, gero eta nabarmenago obsesioa baino. Inoiz desatsegina ere izateraino ailega liteke, seguruenik.

Eta Sevillako *freak* horiek nola umiliatzen dituen ere, ez dakit zer beharra daukan horretarako! Gainera, sermoilari ageri zaigu tarteka. Duela 30 urte Alpujarretan bizi den norbait bailitzen... Edo Triana garai hartako taldearen disko bateko azalean bizi den norbait bailitzen ere, beste modu batez adierazita.

Baina saioak merezi du, une zein egoera askotan. «¿Cómo es ella?» galdetzen dio bapatean Enrique Iglesias gazteari. Ordurarte beste bat zuten mintzagaia, agian arrakastaren beharra edota aitarekikoak. Enriquek dio hamar urtean soilik hiru aldiz eta bost minutuz ikusi dutela elkar aita-emeek. Orduan Quintero berreskuratzen du aitari eginiko elkarrizketa (noiz eta non eginikoa?) eta tartean sartzen du. Semeari buruz ari zaio Julio Iglesias

aurkezleari: maite ez ezik, estimatzen duela, urtean hiruzpalau aldiz luze eta sakon egoten direla elkarrekin.

Alegia, urte hauetan guztietan Jesús Quintero eginiko elkarrizketek artxibo bikaina osatu dute. Behar izanez gero, oraingo saioan erabiltzen duen materiala.

«Cómo es ella?» Enrique zain gelditzen da apurtxo batez. Erantzun ahal izateko, informazio gehiago behar balu bezala. Baina Quintero ez dio galderari beste ezer gehitzen. Begiradaz ulertarazten dio gazteari.

Neskalagunaz hasten da berbetan Enrique. Poliki eta hitz bakoitza ondo aukeratuz. Bera ere tenislariaren izena aipatu gabe. Elkarrizketa ondo ateratzen zaionean —askotan ateratzen zaizkio ondo— esan beharreko hitzak baino ez dira esaten *zoro* honen saioan.

## BIDEBIETA IRRATIA

## Basauritik ia Bizkai osora

Irratia profesionalizatu egin da, eta astelehenetik aurrera zuzeneko programazio berria izango du

## URTZI URKIZU

Basauriko Bidebieta irratia berrikuntza ugari aurkeztuko ditu astelehenean, hilaren 30ean, bere zuzeneko programazioa berri martxan jartzean. Irratiak Nerbioi-Ibaizabal eskualderako emititu du azken zortzi urteotan, eta langile guztiak boluntarioak izan dira.

Baina 2006an gauzak erabat aldatu dira. Bidebieta irratia profesionalizatu egin da, eta kazetari gazteek indartu dute lan taldea. Horrez gain, irudi korporatiboa aldatu, eta emisioa ia Bizkai osora eta Internetera zabaldu du. «Kalitateko informazioan, kulturen eta musikan oinarritzen den komunikazio proiektu alternatiboa» egituratu nahi dute.

«FMn nagusitzen den irratia modelo komertzialarekin aspertuta dagoen entzulearengana heltzea dugu helburu. Bizkaiko kalitateko lehen irratia alternatiboa izatearen aldeko apustua egin dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz informazioa, kultura, artea eta musika ikuspegi ezohiko batetik jorratzen ditugu. Produktuaren kalitatearekiko arreta eta entzulearekiko konpromisoa na-



JOSEBA VEGAS, Jon Villapun eta Zuria Izquierdo Bidebieta irratiaeren egoitza berrian. IGOR ZORROTZUA

gusituko dira gurean», dio Joseba Vegas Bidebieta Irratiko programazio eta edukien koordinatzaileak.

Igor Zorrotzua diseinatzaileak egituratu dituen web eta irudi korporatibo berriek egitasmo berritzaile, moderno eta arriskatuetikiko konpromiso hori islatu nahi dute: «Zorrotzua Euskal Herriko diseinatzaile eta argazkilaria onenatarikoa da. Atom

Rhumba eta Split 77 taldeentzat eta Gasteizko Azkena Rock musika jaialdirako egin du lana. Bilatzen genuen irudi erakargarria eman digu», dio Vegasek. Web berriak —[www.bidebietairratia.com](http://www.bidebietairratia.com)— zuzeneko emisioa jarraitzeko modua ematen du. Gainera, eguneko albiste garrantzitsueni tarte egiten die webgunean.

Edukiei dagokienez, goizero

informazioan oinarrituko den magazin bat egingo dute. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko zazpi arte albisteak izango dira ordu oro. Rock, pop, punk eta bestelako musika programak, zuzenekoak... Eta literatura eta zinemari buruzko saioetan ere lanean ari dira. Basauriko Arizko Ikastolako haurren kolaborazioak ere izango dituzte.

## @ laburrean

**ETB1**  
Ordizian golf zelai bat egiteko egitasmoaren gainean hitz egingo dute gaur 'Betizu' saioan

ETB1eko *Betizu* programan Oianguko egitasmoari buruzko erreportaia bat emango dute. Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataformak igorritako informazioaren arabera, «Ordiziako haur batek programa horretara eskutitz bat bidali zuen, Oiangun golf zelai bat egingo dutela eta ke-xaka». Hori dela eta, joan den ostiralean, *Betizu*-ko lan talde bat Ordiziako kaleetan ibili zen egitasmoaren inguruko iritziak biltzen. Erreportaia 19:00-19:15 eta 19:45-20:00 bitartean emango dute. «Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataformakook informazioa eman bagenien ere, erreportaiaren edukian ez dugu parte hartu», diote.

**AEB**  
Warner Brosek eta CBSk bat egin dute, telebista berri bat sortzeko

AEBetako ikus-entzunezko sektorearen enpresa indartsuenetako bik, CBSek eta Warner Brosek, bat egin dute, telebista berri bat sortzeko. CW Television Network izena jarriko diote kate berriari, eta irailan hasiko ditu emisioak. Programazioa batik bat ikus-entzule gazteentzat izango da.

**MAHAI-INGURUA**  
Telebista eta irakurketa aztergai gaur Donostian

*Castigados sin tele* izenburupean, telebista eta irakurketa inguruko mahai-ingurua izango da gaur Donostian, Fnac-en, 19:00etan. Solaskideak Eli Tolaretxipi idazlea, Isabel Alba irratia zinema eta telebista gidoilaria eta Mauricio Cardona haur literaturako aditua izango dira. Moderatzailea Oscar Pizarro kazetaria izango da.

## 'Euskadi 2050', gaur, ETB1en

Euskal Herriko geroari buruzko dokumentala 22:00etan emango dute

## ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Nola biziko gara euskaldunok hemendik 45 urtera? Galdera horri saiaturko dira erantzuten gaur ETB1eko *Euskadi 2050* dokumentalean (22:00). Maddalen Iriartek eta Asier Odriozolak

2.050. urteko albistegi bat irudikatuko dute, eta hori izango da dokumentalaren ildo nagusia. Etorkizuneko elikagaiak, garraioak, hiriak eta etxeak, medikuntzaren aurrerakuntzak eta klimaren aldaketa izango dira aztergai, besteak beste.

Elkarrizketatuen artean Iñaki Antiguiedad EHUKo irakaslea, Jon Albisu meteorologoa, Pello Salaburu euskaltzaina, Helen Groome EHNEko Ingurumen arduraduna, Pedro Migel Etxenike fisikaria eta Kike Amonarritz soziolinguista daude.



Iñaki Antiguiedad EHUKo irakaslea *Euskadi 2050* lanean. ETB